

1993ko APIRILAREN 29ko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamahiruko apirilaren hogeitabederatzian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi diren gaiak benetan garrantzi handikoak direnez, Bilkura honetan, urjentziz gai hauek tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

SASFAL-ELKARKIDETZA

Gai hau tratatu aurretik, Idazkaria, gelatik ateratzen da, gaiak zuzenki berari afektatzen diolako.

Herri Administrazioako Funtzionariak Gizarte Segurantzaren Errejimen Orokorrean sartzeko, Apirilaren 2ko 480/1993 Errege Dekretua argitaratzeak, SASFAL Kudeaketa Organu Berezian sartuta dauden Udaletxetako eta bere borondatez sartutako Erakundetako funtzionari aktibo eta pasiboen osasun laguntza zerbitzuan izan du eraginik.

Gipuzkoan laguntza hau SASFAL-en bidez eskaintzen da eta aipatu Errege Dekretuak, Udal eta beste erakundeak plenoaren edo antzeko organuren baten erabakiren bat onartzera derrigortzen ditu, Apirilaren 30a baino lehen, ea osasun laguntza hori orain arte bezala SASFAL-en bidez jaso nahi duten ala ez.

Hau dela eta, eta funtzionariak, gainontzeko langileetatik ezberdintasun eta

pribilegiorik eduki ez ditzaten, funtzionarioak diren langileak, Gizarte Segurantzaren Errejimen Orokorrean sartzea, proposatzen da.

Aldi berean, eta aipatutako, Apirilaren 2ko 480/1993 Errege Dekretuaren arabera, funtzionarioak, Gizarte Segurantzako Errejimen Orokorrean sartzean, beren prestazio guztiak osatzen zaizkienez, ELKARKIDETZA izeneko Entitatearen Pentsio planak soberan geratzen dira.

Hau dela eta, 1.993ko Martxoaren ezkerotik, gehiago kuotarik ez ordaintzea, eta gaur egun arte, funtzionarioen izenean botata dagoen diru kopuruaren itzulpena eskatzea, proposatzen da.

Proposamenak, aho batez onartu dira.

APEZTEGIKO RUINA ESPEDIENTEA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Denok dakigu, APEZTEGI etxearen egoera nahiko larria dela, eta ikusi duten teknikoek esaten dutenaren arabera, etxe hori ez da bizitzeko gai.

Hori dela eta, Apeztegi etxean bizi den, FELIZITAS GOIKOETXEAren sendikoen hitzegin da, bere egoerari irtenbide bat bilatu asmoz.

Udalaren planteamendua, etxe horren ordean, FELIZITAS GOIKOETXEA Andreari, gaur egun hutsik dagoen, irakasleen etxea ematea izan zen. Bestela, indemnazio batekin, etxe hortatik ateratzea izango litzateke.

Indemnazioa, legalki, bertan bizi izan den urte bakoitzako, hilabete bateko errentaren ordainketa izango litzateke. Hau da, gaur egun, urteko 300 peza ordaintzen du; Indemnazioa, 100 urte (gutxi gora behera) x 300 = 30.000,- peza inguru izango litzateke.

Udalak eginiko proposamena, ez dute onartu nahi izandu.

Udalaren ustez, egin den eskeintzarekin, gauzak konpontzeko bere borondate ona erakutsi du.

APEZTEGIA etxearen egoera benetan larria denez, eta istripu larriren bat gertatu baino lehen, etxe horren egoerari buruzko txosten bat egiteko, Udaleko Arkitektoari eskatzea, gero ruina espedientea hasi ahal izateko, proposatzen da.

Proposamena, aho batez onartu da.

INTSUMISIOARI ETA ALKATEEN EPAIKETA ETA GARTZELERATZEARI BURUZKO HERRI BATASUNAREN MOZIOA

Militarizazio eta ejertzitoarekiko aurkako joera adierazten duen intsumisioa gazte-sektore askoren aldetik dago onartua eta bereganatua, ejertzitoari eta derrigorrezko soldaduskari uko egiten diotenak egunetik egunera gehiago direlarik. Gizarteak ere bat egiten du gazteokin, ados baitago gizartez neurtzeko erabiltzen dituzten balore berriekin.

Beraz, ez da kasualitatea gure gazte gehienek intsumisioaren aldeko jarrera har dezaten, eta gizarte sektoreen aldetik hainbesteko elkartasuna jaso dezaten.

Estatuak bere ohizko jarrera errepresiboarekin erantzuten du gazte intsumisioak epaituz eta gartzeleratuz, eta halaber ejertzitoari laguntza ukatzen edota Udaletxeetatik elkartasuna eskeintzen diotenak ere.

HERRI BATASUNAK, Udal honi, akordio hau har dezan eskatzen dio:

- 1.- Intsumisioaren aldeko mugimenduari gure elkartasuna birbaieztatu, eta haren alde lan egiteko gure hitza eman ere.
- 2.- Epaitu eta gartzeleratuak izan diren intsumisio guztiekin bat egin, Bakaikuko Alkatea den Javier Aiestaranekin bereziki, gartzelan preso eta

demokratikoki hautatua izan zen kargutik kendua izan delarik.

- 3.- Ejertzitoari laguntza guztiak ukatzeko Udalak hartu zuen akordioa betetzeagatik Apirilaren 23an Etxarri-Aranatzko Alkatea den Manolo Camposi egin zaion epaiketan, berarentzako absoluzioa eskatu eta gure elkartasuna adieraztea.
- 4.- Akordio hau Herrialdeko Entzutegiko Lehendakariari eta Gobernu Militarrari bidali.
- 5.- Udal honen jarrera Herri Batasunari adierazi.

Intsumisioari eta Alkateen Epaiketa eta Gartzeleratzeari buruzko Herri Batasunaren mozioa, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.